

Maddi Urteaga Riaño

B maila • Aipamena

Maddi Urteaga naiz, 2006an jaio tako beasaindarra. La Salle ikastetxean ikasten dut eta DBH-ko azkeneko ikasturtea amaitze ar nago. Nire zaletasun handiena familia eta lagunartean gozatzea da. Bestalde, dantza, mendira joatea baita bidaiatzea ere gustuko ditut. Aurtengo sariak bereziki poztu nau eta bidaia luzea egin ondoren, nire lehengusina izatera heldu denari eskaini nahi diot.



HIRU MILA ETA BERREHUN

Termometroak hogeita hiru zero azpitik markatzen ditu. Hotzik gordinena gaur iritsiko zela aurreikusten zen. Halere, gaurik hotzena ostiralekoa izan da, hogeita hamar gradu zero azpitik neurtzera iritsi zen. Azken egun hauetan hotz boladak eraginda berrehun eta hogeit pertsona hil dira Moskun. Agintariak janari beroa eta hotzaren aurkako babes eskaini diete herritarrei. Hotzaldiak etxebizitza asko ur eta argirik gabe utzi ditu eta milaka eskale erail ditu Errusian.

Bere adinerako aurpegi zimurtua eta begi-zulo handiak dituen emakume argalak, beroki grisaren azpian trapu zikinetan bilduta daraman fardela atera, eta kaleko kantoian kokatzen den apaindura gutxiko eraikin handi bateko ate parean uzten du. Eskuineko poltsikotik zerbait distiratsua atera eta fardelaren barruan sartzen du. Urrutitik urrezko katetxo bat dirudi. Fardela musukatu eta atzera begiratu gabe, ihes egiten du kale amaiera hartu arte. Emakume gaztea laino artean galdu bezain laster, haurtxo baten negarrak astintzen du gau hotz iluna. Plaza Gorri inguruan dabilen jendea oharkabean pasatzen da baina halako batean, vodka botila eskuan daraman emakume batek fardela hartu eta trapu zikinen artetik haur jaio berria atera ondoren, ate joka hasten da, eraikin handiaren ajatutako ate gorriari joka. Emakume handi eta lodikote batek irekitzen du atea. Makurtu eta utzitako fardela hartzen du. Ez da lehen aldia eta ez dirudi azken aldia izango denik.

.....

Tatianaren lehen hilabeteak konplikatua izan ziren bere osasun arazoengatik baina haur hauek bizirik diraute, haien ahulezian indartsuak dira eta bizitzari gogor eusten diote. Eraikin handiaren ate gorritik kanpo dagoen errealitateak berehala irakasten die haien bizitza oztopo-lasterketa baino ez dela. Bertatik noiz aterako zen sekula jakin gabe, inuzente eta zoriontsu, gainerako haurrekin batera hazi zen Tatiana.

Bi urte besterik ez zituen arren, zentruko arauak ezagutu eta ederki errespetatzen zituen. Kasketaldiak egiteko astirik ez zegoen. Goizero betiko errutina: goiz esnatu, zapatilak

bere apaletik hartu, bere tailla baino bi aldiz handiago edo txikiago, zabalago edo estuago den soinekoa jantzi eta gosaltzera joaten zen. Gosaltzeko kafesne koloreko papilla

lerdetsua hartu ondoren, goiz osoa berdez margotutako aretoan ematen zuen haien arropatxoak txukun gordetzen eta tolestatzen. Ingurukoak beti babesteko joera zuen eta asko maite zituen nahiz eta familia baten benetako maitasuna zer zen ez jakin. Tatianarentzat hura zen bere etxea. Hura bere familia. Hura bere maitatzeko era. Hesiaz bestalde zer zegoen ez zekien. Hesiaz bestaldean bizitza zegoenik ere ez. Hura pribilegiatu batzuentzat baino ez zen.

Hesiaz bestalde bizi den edonorentzat, zentroko errutinak errepikakorrak eta aspergarriak dira baina haurrek ez zuten irudikatzen mugarriaz bestaldeko bizitza eta horregatik aspertzea zer zen ez zekitela hazten zihoazen.

Tarteka, bere zaintzaileak, orrazkera bereziak egiten zizkion Tatianari. Egun bereziak ziren haiek. Txirikorda horiek egiteko, iletik tira eta tira egiten zion baina txintik esan gabe hortxe egoten zen, ixil-ixilik jasan behar izaten zuen gaixoak. Oso noizbehinka margotzen aritzen zen, orokorrean orrazkera berezia zuen horietan izaten zen baina horretan trebatzeko aukerarik ez zuten, konturatu orduko margoak desagertzen baitziren eta hurrengora arte... Eguzkiak goxo jotzen zuenean, berriz, taldeko laguntxoekin zaharkitutako parkean jolasten zuen. Txiki-txikitatik gustukoa izan zuen erdoildutako txirrista hartatik behera ahalik eta abiadura azkarrenean jaistea, lotuta sentitzearen kontrakoa bihurtzen zen emozio hura... Haize epelak, hotzak ez bezala, ez zion minik ematen aurpegian eta begiak erdi itxita eramaten zituen beroaren sentsazio goxoaz gozatzeko. Tatianak askatasuna nola irudikatu ez zekiela bizi zen baina bere ezjakintasunetik, emozio hura aske sentitzearen oso antzekoa zen.

Parkean Natasha eta Yelenarekin jolasten zebilela, bere lagun minetako bat eraman zuten. Baina nora? Zer gertatzen zen? Zergatik eraman ote zuten Yelko? Inork ez zuen ezer ulertzen. Inork ez zekien Yelko non zegoen, ez zen inon haren arrastorik. Iluntzean sekula baino lehenago oheratu zituzten baina inoiz baino lo gutxiago egin zuten. Horrelako gauetan bere katetxoa estu-estu heldu eta bihotzaren kontra jartzen zuen, Kazango Ama Birjinak mirariren bat egingo ote zuen zain. Goizean, ezkerretara begiratu eta ohe txiki hartan ez zegoen Yelko. Galdera gehiegi burutxo horietan. Denborak barne mina arintzen duela eta, laster ahaztu zuten Yelko laguntxoa. Benetan ahaztuko ote zuten?

.....

Tatianak hiru urte betetzen ditu. Areto berdean gaur, Tatianaren urtebetetze festa ospatzen dute. Egun berezi honetan, kafesne koloreko papillaren orde, azenario bizkotxoa dute eta bere zatiaren gainean hiru kandelatxo piztu dituzte. Natasha, Yelena, Andrei eta beste laguntxoak inguratuta dago. Ilea hiru txirikordatan bilduta darama eta buruan aintzinako tsarren moduan kolore askotariko loretxoz egindako koroa jarri diote. Kandelak itzaltzerakoan begiak estu-estu itxi ditu desio baten bila arituko balitz bezala. Zer desio ezkutatu dezake malizia gabeko bihotz horrek? Tatianak badaki egun berezietan txirikordak izaten dituela ilean baina gaurkoan, denetan egun bereziena dela ez du susmatzen. Oparia jaso baino bera bihurtuko da opari. Hiru mila eta berrehun kilometro distantziara, hiru mila eta berrehun amets, hiru mila eta berrehun desio, hiru mila eta berrehun zorion iada egi bilakatu dira.